

LABURPEN DOKUMENTUA

Alokairu-erregimeneko etxebizitza babestuen arloan hartu beharreko neurriak, COVID-19 birusaren inpaktu ekonomikoari erantzuna emateko (2020/03/31ko Agindua)



Testuingurua

COVID-19 birusaren hedapen azkarra aurrekaririk gabeko osasun-alerta sortzen ari da, eta osasun-arlokoak ez diren beste eremu batzuetan ere eragina izaten ari da.

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak 300 milioi euroko Funts instituzional bat sortu du, osasun-sistema eta hezkuntza-sistema indartzeko, baita familiei, enpresei eta enpleguari laguntzeko ere. Hala, **funts horretako 2,5 milioi euro etxebizitza babestuen arloko neurrietara bideratuko ditu Eusko Jaurlaritzak.**

Neurriak

1

**Hiri Errentamenduen
Legearen ondoriozko
kaleratze judizialak aldi
baterako etetea**
*(Sailak ofizioz
hasten ditu)*

2

Egoera ekonomiko
kalteberan dauden eta
alokairu babestuko EAEko
parke publikoetan errentariak
direnak **alokairua eta
komunitate-gastuak
ordaintzetik aldi baterako
salbuestea**

3

**Gaztelagun Programaren
laguntzak osatzea**, egoera
berean dauden pertsonentzat

Alokairua eta komunitate-gastuak ordaintzetik aldi baterako salbuestea



NOR izan daiteke onuraduna?

2020/03/14a baino lehen indarrean eta formalizatuta zegoen errentamendu-kontratu baten titular diren pertsona guztiak, norberaren izenean edo errentakide gisa, EAEko etxebizitza-parke publikoetako etxebizitza batean, **baldin eta "egoera ekonomiko kalteberan" badaude.**



Honako hau jotzen da **egoera ekonomiko kalteberatzat**:

- Besteren konturako langileen** kasuan ⇒ Egoera horretan, errentarietako edo emakidadunetako bat langabezian geratu da, osasun-larrialdiak eragindako krisiaren ondorioz.
- Langile autonomoen edo enpresaburu**en kasuan ⇒ Egoera horretan, diru-sarrereren galera edo salmenten beherakada, % 40koa edo handiagoa, jasaten dute.
- Bi kasuetan, gainera, ordaindu beharreko **errentaren zenbatekoa gehi komunitate-gastuak pertsona edo bizikidetz**-unitate errentariaren urteko diru-sarrera haztatuen % 30 baino handiagoak izatea eskatzen da.



ZER NOLAKO etxebizitzetan aplikatzen da?

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren titulartasuneko alokairu babestuko parke publikoko etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak, Alokabide sozietate publikoarenak eta Bizigune programaren esparruan alokatutakoak.

Alokairua eta komunitate-gastuak ordaintzetik aldi baterako salbuestea (jarraipena)



ZENBAT DENBORAZ salbuesten da ordainketatik?

2020ko apirileko, maiatzeko eta ekaineko hilabete osoak.



NOIZ eta NOLA egin behar da eskabidea?

Aurkezteko epea: **2020/05/31ra arte** edo alarma-egoera amaitu eta hilabetera arte.

Eskabideak honako kanal hauen bidez aurkeztu ahal izango dira:

- www.euskadi.eus/zerbitzuak/11022401
- Zuzenean Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bulegoak
- Alokabide sozietate publikoaren kanalak (www.alokabide.euskadi.eus)



Eskabidea egiteko INPRIMAKIA

www.euskadi.eus/zerbitzuak/11022401

Alokairua eta komunitate-gastuak ordaintzetik aldi baterako salbuestea (jarraipena)



ASAP PROGRAMAKO ERRENTARIEK jaso al dezakete laguntza hau?

Bai. Programa honetako etxebizitzaren errentariek, aginduan araututako "kalteberatasun ekonomikoko" egoeran badaude, **salbuespen-eskaera aurkeztu ahal izango diote kontratua sinatu zuten agente laguntzaile homologatuari.**

Gaztelagun programako laguntzak osatzea



NORENTZAT? ⇒ Gaztelagun Programaren onuradunak, baldin eta Aginduan adierazitako egoeretan badaude (ikus 3. orrialdeko koadroa).

JASOTZEKO LAGUNTZA ⇒ Aldi baterako eta ezohiko laguntza osagarria apirilean, maiatzean eta ekainean, aitortuta zuten dirulaguntza osatu ahal izateko, etxebizitzaren hileko errentaren mugetara iritsi arte.

AURKEZTEKO MODUA ⇒ Onuradun bakoitzak egoitza elektronikoaren Nire karpeta atalean irekita duen laguntzaren espedientearen bidez.